

## **1999KO AZAROAREN 18AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hemeretzia

**HILABETEA:** Azaroa

**URTEA:** Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederlatziak eta laurdengutxi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hiru (3)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Ignacio Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

### **1- AURREKO AKTA**

1999ko irailaren 29ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

### **2- FAKTURAK**

17.057.205 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengoa erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiei dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

### **3.- OBRA ZIURTAGIRIAK**

a- Eguneko Zentroa egokitze buruzko obren likidazioa

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 5.548.513 pezetako Eguneko Zentroa egokitze buruzko obren likidazioa.

b- Arantzazu kalea doazen eskailerei buruzko obren likidazioa

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 2.979.265 pezetako Arantzazu kalea doazen eskailerei buruzko obren likidazioa.

c- Telefonika gurutze bideari buruzko obren likidazioa.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 2.347.473 pezetako Telefonika gurutze bideari buruzko obren likidazioa.

d- Gernika Pasealekuko frontoiaren bigarren ziurtagiria eta likidazioa.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 13.122.760 eta 10.151.056 pezetako Gernika Pasealekuko frontoiaren buruzko bigarren ziurtagiria eta likidazioa.

e.- Matxinbentako frontoia egiteari buruzko obren bigarren ziurtagiria

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 8.897.768 pezetako Matxinbentako frontoia egiteari buruzko obren bigarren ziurtagiria.

f- Hainbat espaloi konpontzeari buruzko obren lehen ziurtagiria.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 17.768.531 pezetako hainbat espaloi konpontzeari buruzko obren lehen ziurtagiria.

g- Oria ibaia bideratzeari buruzko zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren obra-ziurtagiria.

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 6.801.352, 15.894.837 eta 4.558.173 pezetako Oria ibaia bideratzeari buruzko obren zortzigarren, bederatzigarren, eta hamargarren obra-ziurtagiriak hurrenez hurren.

**4- HITZARMENA.** Animaliek Babesteko Elkartearekin hitzarmena sinatzeko proposamena.

Ezagutzera eman da 1999ko azaroaren 8ko gizarte-ongizate batzordeko proposamena. Hau da, "gaur egun Itola baserria txakur biltegi modura erabiltzen da. Baserriaren instalazioen desegokitasuna eta animalien bilketaren arazoak direla medio, 1998ko urriaren 22ko Gobernu Batzordean, babes elkartearekin hitzarmena sinatzeko proposamen zehatza ezagutzera ematea erabaki zen. Honen ondorioz, Gipuzkoako animaliak eta landareak babesteko elkartearekin, itsasirik doan hitzarmena sinatzea eskatzen da.

Udalak ordaindu beharrekoa hau izango litzateke:

- 200.000 pezeta Usurbilgo babeslekuaren eraikuntza finantzatzeko (diru kopuru hau behin ordainduko litzateke).
- 700.000 pezeta zerbitzuaren kostuagatik (kontutan hartuta urtean 25 animali jasoak izango litzatekeela)."

Bozketa eginda, aho batez onartu da Gipuzkoako animaliak eta landareak babesteko elkartearekin hitzarmena sinatzea eta Alkate jaunari horretarako baimena ematea.

Aldi berean jakinazari da, 1997. urtean Aitz Zorrotz ehiz eta arrantza elkartearekin hitzarmena sinatu zela, elkarte honi Itola baserria lagatu zitzaion zakurtegiak egokitzeko eta zakur paseaketa eta zakurrei ehizatzen erakusteko ekintzak egiteko. Halaber ezagutu da, German Herrador de la Rosa jaunak 1992. urtean egindako eta indarrean ez dagoen alokairu-kontratuan oinarrituta Itola baserria erabiltzen jarraitzen duela, koneju granja bat ustiatzeko.

Gobernu Batzordeko partaideek diote Gipuzkoako animaliak eta landareak babesteko elkartearekin hitzarmena sinatzea erabaki denez, Aitz Zorrotz elkarteari egindako lagapenarekin jarraitzeak ez duela inolako sentzurik.

Horren ondorioz, ondorengo erabaki da:

**Lehenik.** Aitz Zorrotz Elkarteari adieraztea Elkarte horrekin 1997. urtean egindako hitzarmena desueztatu egiten dela, hitzarmenean jarritako baldintzak betetzen ez dituelako eta horren ondorioz hamabost eguneko epean baserria erabiltzeari utzi egin behar diola.

**Bigarren.** German Herrador de la Rosa jaunari adieraztea, berarekin sinatu zen kontratua ez dagoela indarrean eta hamabost eguneko epea ematen zaiola baserria uzteari buruz, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

## **5.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honako hauek aurkeztu dira:

#### DOKUMENTUAK

Ezagutzera eman da, orain dela bi hilabete edo, Donostiako liburutegi batek Garingo auzoari buruzko hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeko hainbat dokumentu Udalari eskaini ziola 45.000 pezetatan.

Gaia eztabaidatu ondoren, eskaintzaileari idatzi bat bidaltzea erabaki da esanez dokumentuegatik Udalak ez duela dirurik ordaintzen, ordaintzeak aurrekaria sortuko lukeelako eta orain arte ere auzolanetan azaldu diren dokumentuak ez direlako ordaindu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.